

€

Epsilon letra. Euroaren sinboloa. Atzodanik Europako Batasuneko 12 estaturen moneta gisa esanahi osoz betetakoa. Adio pezetari, adio liberari. Gaur pozik behar lukete euskal nazionalistek. Pezeta eta liberarekin batera estatuak ere museoetako apaletara omen zihozen. Borondate erromantiko ezjakinen kontua, historiaren bultzada geldiezinari erresistentzia antzua egin nahia,... zozokeria hutsa zen euskal estatuaren aldarrikapena.

Independentziazaleak gutxietsiz, alegiazko herrien Europa hitzetik hortzera zerabiltzaten EAJko gidariek noizbait aitortu beharko dute oker zeudela. Euskal Herriak ez du ahotsik Europako Batasunaren eraikuntzan. Eta ez du sekula izango espainiar eta frantziar estatuen esku uzten bada. Gernikako estatutuarenak egin du. Hala onartu zuten ia denek orain lau urte.

Euskal nazionalismoak beti begiratu dio gehiegi Madrili. Eusko Jurlaritzak moneta jaulki zuen gerra garaian: pezeta zuen izena. Parisi ere espainiar betaurrekoekin begiratu dio beti. ETA ez da bakarra, ezta lehena ere, Ertzantza, espainiar segurtasun indarrak eta frantsesak kontu handiz bereizten. Polizia guztiak ez dira berdin, baina denak dira estatu bateko legea betearazteko daudenak. Eta hemen bi estatu daude: espainiarra eta frantsesa.

Euskaldunok moneta bera dugu lurralde guztietan. EAEn, gainera, EAJ, EA eta EHk duela bi urte adostatutako aurrekontuak luzatu dituzte oraingoz. Hainbeste komeria eta «nazio eraikuntzarako» aurrekontuak, beraz, estreinakoz eurotan izango ditugunak. Baina ez gara baboak. Txanponaren ifrentzuan, besteak beste, Espainiako Erregea, Cervantes, Marianne eta hexagonoa dauzkagu, euroa zein estatutako hiritar gisa daukagun oroitzeko. Baina ez pentsa horien ordeaz Aralarko San Migel, Etxepare edo Arrano Beltza jarriz konpontzen denik auzia. Sinboloa aldatzeak ez dakar besterik gabe esanahiaren aldaketarik. Ikur berriak ez du berez errealitate berria osatzen. Ea 2002an «nazioa eraiki» baino estatuaren sortze lanetan hasten garen; sinboloekin batera errealitatea hobetzen.